

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Behin betiko onespena ematea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldaketari, zein Zuhatzuko menpeko toki-erakundeko lerrokadura planoan eta kalifikazio xehatuan atzemandako akatsak zuzentzeko baita

Hauxe erabaki zuen udalbatzak 2016ko apirilaren 22an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onespena ematea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldaketari, zein Zuhatzuko menpeko toki-erakundeko lerrokadura planoan eta kalifikazio xehatuan atzemandako akatsak zuzentzeko baita.

Erabaki-proposamena

Zuhatzu menpeko toki-erakundeko lerrokadura planoan eta kalifikazio xehean antzemandako akatsak zuzentzeko Gasteizko Udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko egin den proiektua ikusi da, zeina Udaleko Hirigintza Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak idatzi baitu.

2001ean, Zuhatzu menpeko toki-erakundean urbanizazio-proiektu bat gauzatu zenean, 0059-2051-1305-0014 eta 0059-2051-1305-0054 katastro-erreferentzia duten lursailen barrualdeko zatiak laga zituzten, 1990eko Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren antolamendu xehatuaren arabera zuzkidura publikoetarako baitziren, bideetarako, zehazki.

Ondoren, indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean (2003koa), lagatako lur azalera OR-10 bizitegirako ordenantzaren barruan kalifikatu zituzten.

Udal honetako Alkatzaren eta Erakunde Harremanen Saileko Nekazaritza Eremuaren Zerbitzuak 2015eko irailaren 22an sinatutako txostenaren arabera, 2003ko Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatu beharra dago, Zuhatzu menpeko toki-erakundeko lerrokadura planoan eta kalifikazio xehatua egindako urbanizazio lanei doitzeko.

Horren haritik, Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldakuntza honen helburua da lagatako lur azalera horien kalifikazio xehatua aldatzea, OR-10 bizitegirako ordenantzatik bide sarera.

Beraz, aldakuntza proiektu honek ez du Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko egiturazko antolakuntza zehaztapenik aldatzen, bertako antolamendu xehatuko zehaztapenen bat bakarrik aldatzen du.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketa horri dagokion proiektuan jasota dago oroitidazkia, non honako hauek aipatzen baitira: haren xedea, ekimena, haren egokiera eta beharraren justifikazioa eta indarrean dagoen plangintza eta proposatutakoa, baita planoak eta dagokion dokumentazio grafikoa ere.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran eman zitzaion hasierako onespena Plan Orokorraren xedapen aldaketa horri, Zuhatzu menpeko toki erakundeko lerrokadura planoan eta kalifikazio xehean antzemandako akatsak zuzentzeko helburua baitu, idatzitako proiektuarekin –dosierrean jasoa– bat etorri.

Udalbatzaren erabaki hori 2016ko otsailaren 15eko ALHAOn (18. zk) eta 2016ko otsailaren 5eko Diario de Noticias de Alava egunkarian argitaratu zen, eta aldakuntzari buruzko dokumentazioa hilabete batez jendaurrean jarri. Ez da inolako alegaziorik aurkeztu denbora horretan.

Aplikagarri den legediari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek plan orokorraren eduki substantiboa eta hori gauzatzeko beharrezko den gutxieneko dokumentazioa zehazten dituzte, eta plan orokorraren aldakuntzak antzeko dokumentuetan formalizatuko dira, edukia aldakuntzaren xedera egokituta.

2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 20ko 105/2008 Dekretuaren 30. artikuluan ezartzen denaren arabera, plangintza orokorrean integraturiko antolakuntza xehatua aldatu egin ahalko da plangintza orokorraren aldakuntzaren figura baliatuz, besteak beste, eta horretarako 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan araututako prozedura ezartzen du.

Udalbatzari dagokio hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onespina ematea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak—Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua— 123.1.i artikuluan ezarritakoaren ildotik.

Proposatzen den antolamendu aldaketaren ildotik —dosierren parte diren hirigintza-agi-rietan justifikatzen da horren beharra eta egokiera—, aipatutako arauak aintzat harturik eta Toki Jaurbidearen Oinarriari buruzko 7/1985 Legeak —abenduaren 16ko Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua— 122.4 a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, hauxe proposatzen dio Hirigintzako Irizpen Batzordeak Udalbatzari:


Erabakia

1. Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldaketa bat —zeinak izaera xehatua baitu— behin betiko onestea, Zuhatzu menpeko toki-erakundeko lerroakadura planoan eta kalifikazio xehatuan atzemandako akatsak zuzentzeko, Gasteizko Udaleko Hirigintza Saileko Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak idatzitako proiektuarekin bat etorritz, zeina dosierrean jaso baita.

2. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikulua xedatutakoaren ildotik.

3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluaekin bat etorritz.

ALDATUTAKO ARAUAK



Vitoria-Gasteizen, 2016ko maiatzaren 4an

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE